

Liluratura ◆

◆ irakurlearen hitza ◆

Egiaren gezia

TXILLARDEGI filosofo klasiko bat da, Platonen ezpalekoa, zentzu bitan bederen: egiaren bilatzea du grina nagusi («egiak izan behar du hautuan gidaria», dio); eta aurkituriko egia zabaltzekotan politika darabil, baina baita alegia ere. Jadanik *Oraindik ere Karlismoa nagusi Euskal Herrian* Huntaz eta hartazeko artikuluan adierazi egiak, orain *Putzu*-ren bitartez herrian hezurmami daitezen ahalegindu da.

Historia ofizialak ezkutatut egin digu *Putzu*-k nabaritu duen egia: karlismoa ez zuten Jainkoa eta Erregea

lehenesten zituztenak bakarrik osatu; karlismoan baziren XX. mendeko aberzetasunaren aitzindariak, burujabetasunaz gainerakoa deus gutxi axola zitzaiena. Txillardegiren hitzetan: «Euskal Herria, ia osorik eta behingon, Don Karlosen alde altxatu zenean, Euskal Herriaren alde altxatu uste zuen herriak. Sorterria iratzartu eta salbatu nahi zuen».


Jakina, pedagogiaren arabera aritu behar izan du Txillardegik, kontakizuna ahalik eta argien taxutuz,

egia egokiro hedatzeko asmoz. *Hamaika pauso* amaitzen den lekuan hasten da *Putzu*-n zalaparta, Endarlatsan: biak dira eleberri sendoak, biak ederrak; baita oso desberdinak ere, noski. Zenbait goiargik *Putzu*-ren soiltasun formala mesprezuzko imintzio aristokratiko batez arbuiatzen du, ez baitu xilipurdi *nouveau*-a baliatu: irakurle peplerdoa duzu hori, idorrieriak jotako gizajoa. *Putzu*-k badu giharra, maitasuna, herrimina, heriotza, bizi-bizia da, makina bat pasarte zirrargarrik hornitzen du.

◆◆◆ *Putzu*-k badu giharra, maitasuna, herrimina, heriotza, bizi-bizia da, makina bat pasarte zirrargarrik hornitzen du

bitxikeria goitik beheiti betetzen duen hainbat eleberri posmodernok, aitzitik, kakamokordo batek bezainbeste zirrara du eragiten. Irakurle osasuntsuak plazer hartzen du nola *Hamaika pauso*-rekin hala *Putzu*-rekin, eta biek diote gogoe-ta pizten.

Lan itzela egin du Txillardegik historia eta geografia xehetasunak iker-tzen, XIX. mende amaierako Euskal Herrian barrena bidaiatzeko aukera paregabea eskaini digu; baina hori ez da eleberriaren azala baikik. Hauxe duzu *Putzu* abian jartzen duen kezka:



Izenburua: Putzu
Egilea: Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegik
Argitaratzailea: Elkarlanean, 1999.
385 orr.

zerk behartzen du berez baketsua den lagun bat «aski da!» aldarri egin eta fusila hartzera? Zergatik saiatzen da etnia bat aginte arrotzak ezarriko zula-tzen?

Bizitza bat kontatuz

Erantzuna ez da soziopolitika tratatu zentzudun bat, baizik bizitza baten kontae-ra; ez kontzeptu andana, sentimendua baino; ez teoria, garrasia. Indarkeriaz ezarriko estatu zentralista batuari, desberdinaren, ihesaren, askatasunaren aldarrikapenak dio ihardukitzen. Halaxe mahaigaineratzen du Txillardegik

Markos Zapain auzia: guduan aurrez aurre ez daude, oroz lehen, guber-nua eta herria, edo ekoizte-ko tresnen jabeak eta langi-leak; funtsezko gatazka etnia bakar baten zerbitzu-ra dagoen aginte uniformi-zatzailearen eta mendeen harturiko etnia hilduratua-ren artekoa da.

Izan ere, Txillardegik ez da inoiz isilgordeka ibili ideolo-gia kontuekin, eleberrietan ere ez. Azken eleberrietako bilakaera ideologikoa bat dator ETArenekin: *Exki-xu*-k egundoko gogoa sor-tzen zizun dozena bat zakur garbitzeko; *Putzu*-n berriz erabakiorrak dituzu Lizarra eta Garazi. Bi-biotan ageri da, hori bai, guduari artez ekitekotan maitearen epele-tik aldendu behar mingar-ria, ezin hobeki adierazia.

Margolaritzan, zineman, literaturan, filosofian, zen-bait obra funtsezko zahar-tzaroen baizik ezin izan da sortu: autoreak bizialdi osoko kezak eta entseiuak era xume soil batez bildu, antolatu, gezi bilakatu eta etorkizunerantz jaurtiki-tzen ditu. Gezia ganoraz jaurtikiz gero, Txillardegik *Putzu*-n bezala, etorkizun hori, orain bilakaturikoan, gezi horrek zeharkatua izango da. Kurosawa, Kant, Turner, Chateaubriand dauzkagu adibide... eta bai-ta betiko Txillardegik berria ere, Jainkoak gorde dezala.


◆◆◆ Markos Zapain

◆ irakurtzekoak ◆




Izenburua: Bi malko
Makinarengatik.
Egilea: Fina Casallerrey.
Itzultzailea: Andres Urrutia.
Argitaratzailea: Elkarlanean, 1999, 131 orr.

• **Makina izeneko zakurkumea:** Sei urte bete zituen egunean, Xus-tak zakurkume bat jaso zuen opari gisa. Makina izena jarri zion umeak zakurtxoari eta bere lagunik onena bilakatu. Etxetik aldegin zion arte. 10 urtetik aurrerakoentzako liburu maitasunari buruzkoa da.




Izenburua: Euskaldunak, liberalak eta komunitatezaleak
Egilea: Jon Sudupe Marija.
Argitaratzailea: Euskaltzaindia-BBK, 1999.
175 orr.

• **Saiakera sariduna:** Azken urteotako eztabaida baten ingurukoa da iaz Mikel Zarate Saria irabazi zuen saiakera hau. Liberalisten eta komunitaristen artekoa da eztabaida hori, eta ikusmolde biak elkarrengana hurreratu eta uztartzea da saiakeraren helburua.



Izenburua: Auspoaren auspoa III.
Egilea: Antonio Zabala.
Argitaratzailea: Sendoa, 1999.
204 orr.

• **Hitzaldien bilduma:** Azken bi urte eta erdian emandako hitzaldien bilduma eman du argitara Antonio Zabala tolosarrak, *Auspoaren auspoa I* eta *II* liburuei segida emanez nolabait. Aldi bakoitzean bururatu zaizkion pentsamenduak eta iritziak ageri dira bertan.



Patziku Perurena
zazpi liburua...

Auspoa bilduma
Askoren artean

• Lurra da nere aurreneko eta guzizko entziklopedi bizia. Bila nazazu lur-rean, neure senide horien min-tzaira xaharra ernaberrituz.

Hezurrezko xirulak
Joseba Sarrionandia

• Zein da bizitzan gehiengo plazentzia? Bidea galdetu ondoren hurrunduz doan neskatilaren kantua.

Atea bere erroetan bezala
Eduardo Gil Bera

• Gogoetaren jauregi noblean, euskaraz aritu den pentsalaririk garbalena, zuhur-rena, lasagarriena, bakar-tuena...

Así habló Zaratustra
Friedrich Nietzsche

• Segitzaileok: orain ni utzi eta zeuen buru bila hasteko agintzen dizuet.

Entseiuak I, II, III
Michel de Montaigne

• Norbaitek eskaini digun atsegina, hausnartu, urratu eta edertu egin behar da, behar bezala eskertzekotan.

Vidas y opiniones de los filósofos griegos
Diogenes Laercio

• Talesek «erne: mundua arimaduna da eta izpirituz bete» esan eta, *philosophia* sortu zen (*philos* zalea, *sophia* jakituria).

Gauaren muturrerainoko bidaia
Louis Ferdinand Celine

• Amorrua bezala eragiten zien horrek, esaten nuena benetan sentitzen nuela pentsatzeak.

...eta aipu bat

«Neure biziminetik deserrotu nahi nauten horik guziak dira salbatzaile».

Peter Sloterdijk